

**INAUGURACIÓN BAT-B ACCELERATOR TOWER INAUGURAZIOA**

2022-09-19 Bilbao 19-09-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Bizkaiko ahaldun nagusia, Bilboko alkatea, herri agintari eta ordezkariok, PwC eta Talent Garden-eko arduradunok, jaun andreok, egun on!

Gaur BAT, ekintzailtza eta ikaskuntza proiektu berri eta berritzailea, irekitzen dugu Bizkaiko Dorre honetan.

Hiru mezu labur partekatzen ditut:

-Lehenik eta behin, zorionak luze desiratutako proiektu hau ahalbidetu duzuen eragile guztioi.

Bereziki Bizkaiko Foru Aldundiak amets hori errealitate bihurtzeko eman duen bultzadagatik.

Dorre honek gure Lurraldea berrasmatzeko borondatea adierazten du eta ekintzailtzako ekosistemari bultzada ematen dio.

El proyecto BAT refleja la vocación de Euskadi como “Territorio del emprendimiento”.

Nace del impulso público y estará gestionado por una alianza de empresas privadas que garantizan la conexión internacional con más de 140 Centros en todo el mundo.

Aquí convergen “start ups” con más de una treintena de empresas tractoras, agentes de formación y universidades; inversores; centros de investigación y empresas de servicios.

Es el mejor caldo de cultivo para crecer y desarrollarse.

-Nire bigarren mezua euskal ekosistemaren aldeko apustua nabarmentzeko da. Joan den urteko apirilaren 27an, Erakunde arteko Ekintzailtza Plana onartu genuen. Foru aldundiekin, udalekin eta 100 eragileekin lankidetzan aritu ondoren onartutako Plana da. Honen bidez, lau urtetan, 400 milioi euroko aurrekontu- eta zerga-ahalegina egiteko konpromisoa hartu dugu.

Una inversión para avanzar en cuatro desafíos que compartimos:

-Emprendimiento como prioridad de País,

- Especialización en la industria inteligente;
- Fiscalidad al servicio del emprendimiento, y
- Posicionar Euskadi como polo de referencia internacional en emprendimiento tecnológico industrial.

Creemos en la actividad emprendedora y disponemos de un ecosistema interconectado, sólido, atractivo y competitivo. BAT es un motor adicional que va a contribuir a acelerar el sistema vasco de emprendimiento.

-Hirugarren mezua gure esker ona adierazteko da.

Eskerrak pertsona eta enpresa ekintzaile guztiei. Hemendik aurrera egingo duzuenagatik; eta, baita ere, orain arte egin duzuenagatik.

Gure herriaren ekonomia ehuna berritzeko eta indartzeko ezinbesteko eragileak izan zarete eta izango zarete.

Ekintzaileak, kalitatezko enpleguaren eta gure lehiakortasunaren etengabeko hobekuntzaren eragileak zarete. Ekintzaileak izan dira enpresa handi, ertain edo txikiak, tailerrak edo negozioak irudikatu eta garatu dituztenak. Guztiak dira garrantzitsuak.

Hilabete honetan gure “ekintzaile nagusia” oroitu dugu, Elkano itsas gizona alegia. Bere ereduarekin ere BAT gatoz gaurko ekitaldi honetan.

Las personas emprendedoras son artífices del empleo de calidad y de la mejora progresiva de nuestra competitividad. En su día, personas emprendedoras levantaron lo que hoy es este País; levantaron empresas, grandes, medianas y pequeñas.

Necesitamos una nueva generación de personas emprendedoras y empresas, pequeñas, medianas y grandes, que contribuyan al renacimiento de la economía vasca. Solo así garantizaremos el presente y el futuro de Euskadi.

Gaur BAT egiten dugu ekintzaileekin. Zuen ekintzailtza-espirtua, eta ondo egindako lanaren aldeko grina, gure artean sustraitzen jarraitu behar dugun jarrera da.

Etorkizunari begira gaude. Euskal ekonomiaren berpizkundean eta eraldaketan lagunduko duen enpresa-belaunaldi berri baten bultzada behar dugu. Hori da BAT-en xedea.

Zorionak BAT, ongi etorria eta urte askotarako! Eskerrik asko!